

## 9. ZERGA ORDENANTZA

# UDAL ZERBITZUAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### AURKIBIDEA:

	Orriak
<b>I. Xedapen Orokorrak</b> 1 eta 2 artikulua	3
<b>II. Egitate Ezargarria</b> 3 artikulua	3
<b>III. Subjektu Pasiboak</b> 4 artikulua	4
<b>IV. Salbuespen, Gutxipen eta Onura edo Hobariak</b> 5 artikulua	4
<b>V. Oinarri Ezargarria</b> 6 artikulua	4
<b>VI. Tributu Kuota</b> 7 artikulua	4
<b>VII. Sortzapena eta Ezarpen-Aldia</b> 8 artikulua	5
<b>VIII. Likidazioa eta Ordainketa</b> 9 artikulua	5
<b>IX. Prezio Publikoen Kudeaketa eta Gestioa</b> 10 eta 11 artikulua	5
<b>X. Azken Xedapena</b>	6
<b>9. ZERGA ORDENANTZAREN ERANSKINA</b>	
<b>I. Udal langileek zerbitzuak ematea eta Laudio udalaren materiala nahiz instalazioak erabiltzeko baimena</b>	7 – 9
<b>II. Udal argitalpenetan publizitatea sartzeagatiko prezio publikoak</b>	9 – 10
<b>III. Bizigabe eta geldoen udal isurtegia erabiltzea</b>	10
<b>IV. Lanbide heziketako udal ikastetxeak emandako lanean dauden langileentzako prestakuntza ikastaroak</b>	10
<b>V. Kultura etxeko ikastaroak</b>	10 – 11
<b>VI. Ludoteka</b>	11



	<b>Orriak</b>
<b>VII. Ikuskizunak eta ekitaldiak</b>	11
<b>VIII. Zinematografia programak</b>	12
<b>IX. Berdintasunerako ikastaroak edo tailerrak</b>	12
<b>X. Udal Euskaltegiko zerbitzuak erabiltzea</b>	12
<b>XI. Haur eta gazteentzako ekintzak</b>	13
<b>XII. Prestakuntza zerbitzuak</b>	13
<b>XIII. Enpresen haztegiko lokalen emakida edo lagapena</b>	13 – 14
<b>XIV. Liburuak eta argitalpenak saltzea</b>	14
<b>XV. Azken xedapena</b>	15

## **9. ZERGA ORDENANTZA**

**Azken aldaketa Udalbatzak 2016/10/27 eguneko osoko bikura erabakiz**

**Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/11/04 eguneko 123 zk.an**

**Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2016/12/21**

**Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/12/28 eguneko 146 zk.an**

**Indarrean sartu: 2017/01/01**

## 9. ZERGA ORDENANTZA

# UDAL ZERBITZUAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### *1. Artikulua.*

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat, erabaki eta ebatzi du Prezio Publikoak exijitzea Ordenantza honetan jasotako arauen eta bere parte den Prezioen Eranskinaren araberako Zerbitzuak Prestatzeagatik edo Jarduerak Gauzatzeagatik.

#### *2. Artikulua.*

Ordenantza hau Laudioko udalerrri osoan aplikatuko da.

### II. EGITATE EZARGARRIA

#### *3. Artikulua.*

Prezio publikoak ordaindu beharra sortzen duen objektua udalaren eskumeneko zerbitzuen prestazioa eta jardunak burutzea izango da, beti eta honako baldintza eta gorabehera hauek betetzen ez badira:

a) Herritarrak bere borondatez eskatu edo hartu behar dituenak. Hara, herritarrak bere borondatez zerbitzuak eskatu edo hartzeaz ez dira hartuko honako hauek:

Lege edo arauen mailako xedapenek derrigor eskaintzea aginduta dagoenean.

Eskatutako ondasun, zerbitzu edo jarduerak nahitaezko eta ezinbestekoak direnean eskatzailearen bizimodu pribatu edo sozialerako.

b) Indarrean dagoen araudiarekin batera sektore publikoaren aldeko erreserba erabakita egon zein ez, sektore pribatuak zerbitzu horiek ez prestatu edo burutzea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

#### ***4. Artikulua***

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak zerbitzu edo jardun publikoaren onura jasotzen dutenek ordaindu beharko dituzte.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak Eranskinean daudenak dira.

### **IV. SALBUESPEN, GUTXIPEN ETA ONURA EDO HOBARIAK**

#### ***5. Artikulua.***

Ordaindu beharreko zenbatekoak eskatutako edo prestatutako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eta epigrafeetan azaldutako zenbatekoak ezin izango dira gutxitu.

### **V. OINARRI EZARGARRIA**

#### ***6. Artikulua.***

Ordenantza honek arautzen dituen udalak zerbitzuak edo jarduerak prestatzeko, aldez aurretik Laudioko Udalari horiek eskatintzea edo burutzea eskatu beharko zaio. Zerbitzu edo jarduera horiek ematea onartuta dagoela ulertuko da beti, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzearen baldintzapean, eta zerbitzuen eta jardueren luzatu badira, prezio publikoa ez bada ordaintzen era automatikoan erakarriko du zerbitzua edo jarduera ez prestatzea.

### **VI. TRIBUTU KUOTA**

#### ***7. Artikulua.***

Zerbitzua prestatzeagatik edo jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko Prezio Publikoak zehatz mehatz espezifikatuta daude Ordenantza honen Eranskinean.

Hasierako kuotari legez aplikagarria zaion BEZa gehitu behar zaio; horren ondorioa izango da subjektu pasiboak ordaindu beharreko behin betiko kuota.

## **VII. SORTZAPENA ETA EZARPEN-ALDIA**

### **8. Artikulua.**

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharra sortuko da zerbitzuaren prestazioa edo jardueraren burutzapena hasten denetik.

Hala ere, dagoeneko emanda edo luzatuta dauden zerbitzuen prestazioa edo jarduerak burutzearen kasuan, ordaindu beharra tarifa bakoitzerako azaldu eta adierazitako denbora aldikada bakoitzeko lehenengo egunean hasiko da.

## **VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

### **9. Artikulua.**

Prezio publikoaren ordainketa honela egingo da:

- a) Zerbitzuen prestazioa edo jardueren burutzapena denean, udal gordailuzaintzan dirua zuzenean sartua izan beharko den gordailu bitartez, zerbitzua prestatu edo jarduera burutu aurretiko izaeraz eta seinalatutako gutxieneko zenbatekoaz.
- b) Zerbitzuen prestazioa edo jardueren burutzapenaren izaera dela-eta aldeztu aurretik ordaindu eta gordailuan sartzea ezinezkoa denean, Laudioko Udalak dagokion faktura aurkezten duen unean.
- c) Urte izaerako zerbitzuen prestazioa edo jardueren burutzapena denean, urte naturalerako Prezio Publikoen barruan sartutako matrikula ordaindu ondoren.

## **IX. PREZIO PUBLIKOEN KUDEAKETA ETA GESTIOA**

### **10. Artikulua.**

Jarduera ezin bada burutu eta gauzatu prezio publikoa ordaindu beharra duenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak bitarteko direla, dagokion zenbatekoa ordaindu duenari bueltatu beharko diogu.

### **11. Artikulua.**

Prezio publiko hauek ordaintzeko emandako epearen barruan ordaindu gabeko zerga-zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraz beharretsi eta ordainaraziko dira.

## **X. AZKEN XEDAPENA**

Udal Zerbitzuak Eskaini eta Jarduerak Burutzeagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen honako Ordenantza Fiskala eta jarraian doan Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2016ko urriaren 27 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 21 egunean. Indarrean jarriko da 2017ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Alkate-udalburua,

Idazkaria,

Jon Iñaki Urkixo Orueta

M<sup>a</sup> Aranzazu Lili Salazar

## ERANSKINA

# UDAL ZERBITZUAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### I. UDAL LANGILEEK ZERBITZUAK EMATEA ETA LAUDIO UDALAREN MATERIALA NAHIZ INSTALAZIOAK ERABILTZEKO BAIMENA.

#### **OBJEKTUA.-**

Ordaindu behar izate honen objektua honako hau da:

1. Udal langileek prestatutako zerbitzuak edo Laudioko Udalaren kargutan, Norbanakoaren eskaeraz egiten direnean edo ordezko izaeraz.
2. Udalaren jabetzapeko materiale, makina, herra mintza, e.a. mailegatu erabilera prestazioa egiteko eskatzaileek eta horretarako baimena eskuratu dutenek.
3. Udalaren jabetzapeko areto edo instalazioen erabilera.

#### **SORTZAPENA.-**

Kontribuzio obligazioa sortzen da udal langileen zerbitzuak eskatzeko, materialeak erabiltzeko baimenaz eta Laudioko Udalaren jabetzapeko instalazioen erabilera egintzarekin batera.

Hala berean, Udalak parte eta esku hartu behar duenean inoren ordezko legez.

#### **SUBJEKTU PASIBOA.-**

Ordaintzeko obligazio dute prestatutako zerbitzua, udalaren materiale erabilera baimena eta udal instalazioen erabilera eskatu edo eragin duten pertsona natural edo juridiko onuradunek.

#### **ZERGA OINARRIA.-**

- 1.- Zerbitzuak prestatuak izan badira udal langileekin edo Laudio Udalaren kargutan, bizilagun norbanakoaren eskaeraz egiten direnean edo ordezko izaeraz.

a) Ordaindu behar izate honen oinarritzat hartuko da zenbat efektibo, pertsona zein material, eta zerbitzu prestazioan edo laguntzak dirauen bitartean erabilitako denbora.

Zerbitzua beste hirugarren batek prestatzen badu, Prezio Publikoa izango da hirugarren horrek udalari fakturatutako kostuaren zenbatekoa.

b) Jaso behar den tarifa Laudio udalak egindako lanen kasuan, hala norbanakoaren eskaeraz izan nola ordezko izaeraz izan, hau da, lan horiek egiteko obligazio duen herritar administratuak huts egin eta lanok egin ez balitu, arretiko formaz horretarako errekerituta, izango da Laudio Udalari suposatzen dion kostu-zenbatekoaren baliokidea edo lan hori egiteko enkargua eman zaion enpresak Laudio Udalari aurkeztutako fakturaren zenbatekoa.

Tarifa horrek % 15 igoera izango kudeaketa gastuen kontzeptuan.

c) Eusko Jaurlaritzak horretarako baimendutako enpresa espezializatuek ezabatu behar dituzten Udal Hiltegia sortutako "MER" gaien tratamenduaren kasuan, aipatu den zerbitzu horren kontratazioak suposatzen dion kostua gaineratuko dio.

d) Zerga-salbuespen honen objektu diren zerbitzuen prestatzen zaizkien pertsona natural edo juridikoek hala eskatu behar dute beren beregi, zehaztuz honako ingurabarrak: lekua, eguna eta prestatu beharreko zerbitzua zehazteko gainontzeko informazio inguruabar guztiak.

e) Premiazko arrazoiak tarteko direla prestatutako zerbitzuetan, interesatuek eskaerarik aurkeztu ez izank ez du eragotziko dagokion kitapena praktikatzeko.

2.- Udalaren jabetzapeko materiale, makina, erreminta, e.a. maileguzko erabilera prestazioa egiteko eskatzaileek eta horretarako baimena eskuratu dutenek.

Udalaren jabetzapeko materiale, makina, erreminta, e.a. maileguz erabiltzeko prestazioaren kasuetan, aplikatu beharreko Prezio Publikoa, kasuan kasuko, finkatuko da, Udalbatzarreko Osokoaren ebazpen bitartez, maileguan lagatako horren balorazio teknikoa egingo duen txostena aurrean dela, ebazpenen bertan finkatutako portzentajezko tasa baten aplikazioaren bitartez, gerta litezkeen kalteengatik erantzuteko gordailatzea komeni edota beharrezkoa iritzi dakioken bermearen kalte barik.

Hala bada kasua, txosten teknikoak barne hartuko du bueltatu gabeko edo hondatutako materialearen kostua, izan ere, material mailegua jaso duenari kobratuko baitzaio.

3.- Udalaren jabetzapeko areto edo instalazioen erabilera.



Udal aretoen erabilera kasurako, izan litezkeen kalteengatik erantzuteko gordailuan utzi beharko den egoki edo/beharrezko iritzi litekeen bermea eta gaudimenaren kalte barik, ondorengo prezio publikoak erabaki dira.

	<b>Euro/erabilera ordua</b>
- Aforoko 50 pertsona arteko aretoak	51,72
- Aforoko 100 pertsona arteko aretoak	77,59
- Aforoko 200 pertsona arteko aretoak	103,45
- Aforoko 200 pertsona baino gehiagoko aretoak	155,17

### **APLIKAZIO ARAUAK.-**

1.- Ordainarazpena sorpetutzat joko da zerbitzuaren prestazioa hasten den unetik eta horren kitapena Errenta eta Ordainarazpen Zerbitzuak praktikatuko du.

2.- Prezio horiei une bakoitzean indarrean dagoen BEZaren zerga-tipoa ezarriko zaie.

3.- 3. zerga-oinarriko prezio publikoa ez da aplikatuko erabiltzaileak direnean norbanakoak, kultura- edo jolas-elkarteak, alderdi politikoak, hautesle-elkarteak edota irabazi-asmorik gabeko erakundeak. Salbuespenetik kanpo geratzen dira Jabeen Erkidegoak.

Ez da ezarri prezio publikorik ezkontza eta hileta zibilak egiteko udal araudian aurreikusitako aretoak lagatzen kasuetan ere.

4.- Egutero hiru ordu baino gehiago prestakuntza ikastaroak antolatzen dituzten udalerriko enpresek ordaindu behar duten gutzirako prezioa, betiere instalazioa zabaldua dagoen ordutegi barruan, alokairu eguneko 100,00 euro izango da 50 pertsona arte, eta hortik goragoko kopuruek 200,00 euro. Egutero hiru ordu baino gutxiagokoa denean, erabilera-ordu bakoitzerako adierazitako prezioak ordainduko dira.

5.- Tarifa horietatik kanpo eta salbuetsita geratu da, Udalaren Zerga Ordenantzetan beste erabilera espezifikoren bat dutenak.

## **II. UDAL ARGITALPENETAN PUBLIZITATEA SARTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK**

<b>Gutun-azal barruan sartzea</b>	<b>Norbanakoak edo enpresa pribatuak</b>	<b>Erakunde edo enpresa publikoak</b>
A4	400,00	Dohainik
A5	300,00	Dohainik

Edonola ere, gutun-azalean sartze eta banatze gastuak iragarleen kontura dira.

	<b>Euro/cm<sup>2</sup></b>
--	----------------------------

Udalak zuzenean ateratako argitalpenetarako	1,70
---	------

Prezio hori igo egingo da % 20, Aurre eta Atze aldeetarako.

***APLIKAZIO ARAUAK.-***

1. Goiko taulan agertu diren tarifen aplikazioaren ondorioz sortutako kuotei, une bakoitzean indarrean dagoen B.E.Z.aren (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren) zenbatekoa gehitu behar zaie.

2. Tarifa honen aplikaziotik salbuetsita publizitate kasuetarako herriko etxeak ekudi zehatz eta jakin batzuen edizioa eta publikazioa hirugarren batzuekin legearen arabera kontratatuko dituenak eta zeintzuetan hitzartzen den aipatutako argitalpenetan publizitatea sartu eta txertatzeagatik kontratistak libreki lortu ahal dituen diru-baliabideak kontraprestazio formaren bat izan ahal direnak.

**III. BIZIGABE ETA GELDOEN UDAL ISURTEGIA ERABILTZEA**

Materiale Bizigabe eta Geldoen Udal Isurtegia Ebiltzeagatik prezio publikoaren kontzeptuan ordaindu beharko den kontzeptua, isuritako tonak kontuan izanik kalkulatu da, 2,10 euro / Tm edo zatikia oinarria hartuta.

Prezio horiei une bakoitzean indarrean dagoen BEZaren zerga-tipoa ezarriko zaie.

**IV. LANBIDE HEZIKETAKO UDAL IKASTETXEAK EMANDAKO LANEAN DAUDEN LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK.**

Pertsona fisiko eta juridikoekin adosten badira lankidetzaren hitzarmenak izenpetzea Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeak erakunde horietako langileei prestakuntza ikastaroak emateko, ordaindu beharreko prezio publikoa kasuan kasuko hitzarmen horretan bertan zehaztuko da, prezio publiko hori zehazteko elementu guztiak hartuko direlarik kontuan.

Hitzarmenean sartutako prezio horri une bakoitzean indarrean dagoen B.E.Z.a aplikatuko zaio.

**V. KULTURA ETXEKO IKASTAROAK**

	<b>Euro</b>
- 44 orduko ikastaroak, 22 urtetik gorakoek	68,85
- 44 orduko ikastaroak, 15- 21 urte bitartekoek	51,55
- 44 orduko ikastaroak, 14 urtera artekoek	34,30

Laudioko Udalak antolatzen baldin baditu ordu gehiago edo gutxiagoko ikastaroak, asteen 4 ordukoarekiko prezio publiko proportzionala aplikatuko da.

Prezio Publiko horiek BEZ barne dute.

### **HOBARIAK:**

1. Laudion erroldaratutako eta langabezia egoeran dauden 22 urtez gorako ikasleentzat, prezio publikoari % 10eko kenketa aplikatuko zaio. Matrikula formalizatzeko orduan langabeziako txartela aurkeztu beharko du.

2.- Laudion erroldatuta dauden ikasle alargunei % 20 murriztuko zaie prezio publikoa. Alarguntza egiaztatzeko familia-liburua aurkeztu beharko du, baita Ogasunaren ziurtagiria ere, frogatuta uzteko aberastasun-iturri bakar gisa alarguntza-pentsioa duela eta horiek direla bere urteko diru-sarrerak. Urteko diru-sarrera horiek une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago izan beharko dira. Zenbateko hori berdin aplikatuko zaie kasu hauei, kontuan hartuta aberastasun-atalasea definitzeko estatistika-erreferentea dela eta urtero eguneratu beharko dela.

## **VI. LUDOTEKA**

	<b>Euro</b>
- Hileko Kuota	5,00
- Hiruhileko kuota	12,00
- 3 hiruhileko kuota	30,00

Prezio Publiko horiek BEZ barne dute.

## **VII. IKUSKIZUNAK ETA EKITALDIAK**

Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpen bidez ezarriko da Laudio Udalak antolatutako edozein ikuskizun motara joateagatiko prezio publikoa. Hori zehazteko, Udalari ikuskizuna antolatzeak eragin dizkion gastuez gain, kontuan hartu ahal izango dira prezio publikoa modula dezaketen beste zenbait inguruabar, (adibidez, adingabeak, adin zehatz batetik gorakoak, bultzatu nahi diren kultura eta kirol ekintza, etab.), betiere, kontuan hartuta gutxieneko eta gehieneko baldintza hauek:

**Euro**

Era eta mota guztietako kultura, jai edo kirol ikuskizun eta ekitaldien antolamendua	Gutxienez: 0,00 Gehienez: 60,00
--	------------------------------------

Finkatutako Prezio Publikoan unean uneko indarreko BEZ sartuta dagoela ulertuko da.

## VIII. ZINEMATOGRAFIA PROGRAMAK

Laudio Udalak antolatutako proiektzio zinematografikoetara joateak prezio publiko hauek sortuko ditu, BEZtik salbuetsita:

	<b>Euro</b>
- Estrenoko filmak (karteldegian)	3,00
- Beste filma batzuk	2,00

Estrenoko filmatzat hartuko da merkatura irten zenetik sei hilabeteko epea oraindik bete ez duen filma.

## IX. BERDINTASUNERAKO IKASTAROAK EDO TAILERRAK

Laudio Herriko Etxeak antolatutako berdintasunerako ikastaroetara edo tailerretara joateak sorraraziko ditu ondorengo Prezio Publikoak, BEZ barne:

	<b>Laudion erroldatutako pertsonak</b>	<b>Laudion erroldatu gabeko pertsonak</b>
- 20 ordu arteko iraupena	3,00	5,00
- 20 ordutik gorako ikastaroak	5,00	7,00

## X. UDAL EUSKALTEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

1.- Hauek izango dira ikasturte bakoitzeko prezio publikoak:

	<b>Euro</b>
2 orduko ikastaro (ikasturte osoa)	305,28
3 orduko ikastaroa	228,97
5 orduko ikastaroa	368,89
Udako 5 orduko ikastaroa	120,85

2.- Finkatutako Prezio Publikoetan unean uneko indarreko BEZ sartuta dagoela ulertuko da.

## **XI. HAUR ETA GAZTEENTZAKO EKINTZAK**

1.- Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpen bidez ezarriko da Laudio Udalak haur edota gazteentzat antolatutako edozein ikuskizun motara joateagatik prezio publikoa. Hori zehazteko, Udalarik ikuskizuna antolatzeak eragin dizkion gastuez gain, kontuan hartu ahal izango dira prezio publikoa modula dezaketen beste zenbait inguruabar, (adibidez, adingabeak, adin zehatz batetik gorakoak, bultzatu nahi diren kultura eta kirol ekintza, etab.), betiere, kontuan hartuta gutxieneko eta gehieneko baldintza hauek:

	<b>Euro</b>
Haur eta gazte aisialdiko ekintza eta tailerrak	Gutxienez: 0,00 Gehienez: 60,00
Irteera programatuak, bisita kulturalak, e.a.	Gutxienez: 0,00 Gehienez: 250,00

2.- Laudion erroldatuta ez dauden pertsoneri 2 euro gehiago kobratuko zaie suertatuko den Prezio Publikoan, salbu eta doaneko jardueretan.

3.- Finkatutako Prezio Publikoan unean uneko indarreko BEZ sartuta dagoela ulertuko da.

## **XII. PRESTAKUNTZA ZERBITZUAK**

### **TARIFA.-**

Araututa Ez dauden Beste Irakaskuntza Batzuetako Ikastaroak Lanbide Heziketako Udak Ikastetxeak antolatutakoak:

Organismo Publikoek diruz partzialki eta zati batean lagundutako arautu gabeko beste irakaskuntza batzuetako ikastaroak ematearen kasuan, eta ikastaro horien kostua estali ahal izateko matrikulak kobratu behar direnean, matrikula kuota kasuan kasuko Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du zein izango den, behin dakienean ikastaroa ematearen kostu osoa eta emandako diru laguntzaren zenbatekoa, eta ezberdintasun horrek zehaztuko du zenbat kobratu behar den matrikulagatik.

## **XIII. ENPRESEN HAZTEGIKO LOKALEN EMAKIDA EDO LAGAPENA**

### **APLIKAZIO ARAUAK.-**

1ª.- Prezio Publiko honen objektua da enpresen haztegiko lokalen erabiltzen uztea, Laudio Udalak halaxe erabaki ostean.

2ª.- Prezio Publiko honen subjektu pasiboak badira enpresen haztegiko lokalen erabileraren kontzesioa edo lagapena duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3ª.- Prezio Publikoa zorpetzen da eta zerga oindaindu beharra sortzen da Udalak aretoaren erabilera baimena eman duen egunean; hilabete osoa ordainduko da, baimena eman duen eguna edozein izanik ere.

4ª.- Enpresen haztegiko lokalen erabilera arauak jasota daude horiek arautzen dituzten Erregelamenduan.

5. Finkatutako Prezio Publikoetan unean uneko indarreko BEZ sartuta dagoela ulertuko da.

#### **TARIFAK.-**

Lagapendunek ordainduko dituzte ondoko kuotak:

	<b>Euro/m<sup>2</sup>/hileko</b>
Lehen urtean	9,00
Bigarren urtean	12,00

## **XIV. LIBURUAK ETA ARGITALPENAK SALTZEA**

### **APLIKAZIO ARAUAK.-**

1.- Prezio publiko honen zergaia da Laudio Udalak liburuak eta argitalpenak saltzeko zerbitzua ematea.

2. Prezio publiko honen subjektu pasiboak dira zergaia diren liburuak edota argitalpenak erosten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Liburuak edota argitalpenak saltzen diren unean sortzen da prezio publikoa eta zerga ordaintzeko betebeharra.

4. Prezio publiko hau Tokiko Gobernu batzarraren erabaki bidez ezarriko da, kontuan hartuta jarraian ageri diren minimoa eta maximoa.

5. Prezio Publikoan unean uneko indarreko BEZ sartuta dagoela ulertuko da.

#### **TARIFAK.-**

	<b>Euro</b>
Liburuak edota argitalpenak saltzea	Gutxienez: 0,00 Gehienez: 60,00

## **XV. AZKEN XEDAPENA**

Udal Zerbitzuak Eskaini eta Jarduerak Burutzeagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen honako Ordenantza Fiskala eta bere Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2016ko urriaren 27 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 21 egunean. Indarrean jarriko da 2017ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Alkate-udalburua,

Idazkaria,

Jon Iñaki Urkixo Orueta

M<sup>a</sup> Aranzazu Lili Salazar